BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4571

AGINDUA, 2013ko urriaren 8koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Euskal Enpresarien Konfederakuntzak (Confebask) izendaturik Nestor Eriz Laskurain jauna Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluko kide egiteko dena.

Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Legeak 14. artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legeak V. tituluan arautzen du Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseilua.

Euskal Unibertsitate Sistema arautzen du otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, eta lege horretako 71.2.d) artikuluak berariaz arautzen du Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluaren osaera. Lege horrek arautzen duena betez, Euskal Enpresarien Konfederakuntzak, pasa den irailaren 25ean egindako bilkuran, Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseilurako ordezkari bat ordezteari ekin dio.

3/2004 Legearen 73.5 artikuluak dio ezen, Gizarte Kontseiluan gizarte-interesak ordezkatzen dituzten kideen lekuak hutsik gelditzen badira, heriotzagatik, dimisioagatik, izendatu ondoren agertutako bateraezintasunagatik edo kargua behartuta uzteagatik gertatu denean beteko direla berriro, bestela ez. Lekua hutsik utzi duen kidea aukeratu zuen erakundeari dagokio leku horretarako beste kide bat aukeratzea. Lekua hutsik utzi zuen pertsonak agintaldia osatzeko behar zuen aldia iraungo du kide berri horren agintaldiak.

Horren arabera, eta otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 73.2. artikuluak, interes sozialak ordezkatuko dituztenak unibertsitateen arloan eskuduntzak dituen sailburuaren aginduz izendatuak izango direla ezartzen duenak, xedatutakoaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Euskal Enpresarien Konfederakuntzak (Confebask) aukeratutako Nestor Eriz Laskurain jauna Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluko kide izendatzea. Izendapen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara ematen den egunean jarriko da indarrean, eta agintaldiaren iraupena 2015eko irailaren 11ra artekoa izango da, egun hartan bukatzekoa baitzen Federico San Sebastián Flechoso jaunaren izendapena.

Bigarren artikulua.– Federico San Sebastián Flechoso jaunaren kargu uztea formalizatzea, Euskal Enpresarien Konfederakuntzak (Confebask) Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluko kide izateari dagokionez.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 8a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.